UR ZIKINA EZIN DA GARBITU

(Afrikako esaera zaharra)

Zaindu ezazu,

bizitzaren irribarrea da.

Zure eskuetan dago



HEZKUNTZA OSAGARRIA

12 URTETIK AURRERA

6 EDATEKO URA ETA SANEAMENDUA
GARAPEN IRAUNKORRERAKO HELBURUAK
sed Solidaridad | Educación | Desarrollo
PROYDE
FUNDACIÓN EDELVIVES
PROYDE PROEGA
proide
PROCLADE
proideba
SOPRO
prodade yanapay
De La Salle
La Salle International Foundation

1. JARDUERA: URA, BEHARREZKO ABERASTASUNA.

SARRERA ETA JUSTIFIKAZIOA

2010. urtean, Milurteko Garapen Helburuen barruan, 2.600 milioi pertsona inguruk lortu zuten ur-iturri hobetuak eskuratzea, eta munduko biztanleen % 90ek ura eskuratzeko aukera izatea lortu zen. Hala ere, adierazle hori mundu-mailan edateko uraren eskuragarritasuna kalkulatzeko erabiltzen den arren, ur-iturri hobetuak gizakiaren kontsumoa animalien kontsumotik eta ur beltzetatik bereizten dituztenak dira, baina ez da nahitaez edateko ur ona, eta, beraz, adierazle hori ez da guztiz fidagarria. Gaur egun, oraindik ere 663 milioi pertsonak ez dute bermatuta ura eskuratzeko eskubidea; erdiak Saharaz azpiko Afrikan, eta bosten bat Asiako hegoaldean.

Ura eta saneamendua eskuratzeko eskubidea eskubide unibertsala da, baina oraindik ez dago bermatuta. Jolas honen bidez, uraren balioa erakutsi nahi zaie gazteei, eta herrien garapena uraren eskuragarritasunaren mende dagoela ikusarazi nahi zaie. Madagaskarren GGKEek egiten duten lana aurkezteko baliatuko dugu jarduera, non uraren eskuragarritasunari zein saneamenduari lotutako hezkuntza-proiektuak dauden.

HEZKUNTZA-HELBURUAK

- Madagaskarreko egoerari buruz sentiberatzea, 6. GIHaren ikuspegitik.
- Modu kooperatiboan jolasten ikastea.
- Uraren eskuragarritasuna bermatuta izateak gizartearentzat zer dakarren ikustea.

DENBORA

1h

MATERIALA:

- Plastiko berrerabilgarriko 15 edalontzi
- 2 ontzi (kuboak, garbiontziak...)
- Begiak estaltzeko zapiak edo mozorroak
- Eranskinak: 1, 2, 3, 4

GARAPENA

Sarrerako egoera irakurriko dugu (1. eranskina)

JARRAIBIDEAK:

4 talde egingo ditugu, eta talde bakoitzak rol bat aukeratuko du: familiako gurasoak; komunitateko neskak; eskolako zuzendaritza-taldea; tokiko GKEa.

Talde bakoitzari fitxa bat emango diogu (2. eranskina); aurrealdean, egoera eta jokoaren helburua azaltzen dira. Atzealdean, helburua ageri da, eta probak egiten dituzten heinean lortu beharko dituzten lorpen-mailak zehaztuta daude. Irakurri egin behar dute, eta dagokien rola hartu.

Proba bat gainditzen den bakoitzean, ur-tanta bat emango diogu (3. eranskina- TANTAK) eskatzen duen talde bakoitzari.

Azken helburua talde bakoitzaren 4 tantak lortzea da.

Garapena:

4 proba daude, talde bakoitzarentzat bana. Aukeratutako ordenan hasiko dira; gainerako taldeek behatzaile, ebaluatzaile eta laguntzaile lanak egin behar dituzte proban, zehazten zaienaren arabera.

PROBAK:

GURASOAK: jokoan parte hartuko duten guztiak jaiotza-dataren arabera ordenatzean datza proba, baina ezin dute hitzik egin, eta keinuen bidez komunikatu beharko dira. 3 minutu igaro baino lehen lortu behar dute.

Lortzen badute - Talde honek bere lehen helburua lortuko du, hau da, pertsona helduentzako nekazaritza-prestakuntzako ikastaroa. Prestakuntza hori GKEak aurkeztu duen dirulaguntzari esker egin ahal izan da; beraz, GKEak ere bere lehen helburua lortu du. Prestakuntza horri esker, beste ikasle bat matrikulatu ahal izango da (1. helburua, neskak), eta, beraz, eskolak ikasle bat gehiago izango du, ekonomikoki hobera egingo du eta kantina bat ireki ahal izango du (1. helburua lortuta), ikasleentzako janaria bermatzeko. Hala, bada, gurasoen ahaleginari esker, guztiok hobetu dugu gure egoera. Eskerrik asko.

Lortzen ez badute - SEz dute helbururik lortuko.

GKEa: GKEaren proba honetan datza: plastikozko edalontzi berrerabilgarrien dorre bat desmuntatu behar dute, eta ordena berean muntatu behar dute berriro, baina 5 metroko distantziara, 4 minutu baino gutxiagoan. Pertsona bakoitzak edalontzi bakarra har dezake egiten duen bidaia bakoitzean.

Edalontzien hasierako irudia (3. eranskina - EDALONTZIAK)

Lortzen badute – Con esta prueba la ONG obtiene una aportación económica de 6.000€ (objetivo 2) que permite generar dos puestos de trabajo en la cantina de la escuela (obj 2) y por lo tanto padres y madres tiene la oportunidad de hacer una entrevista de trabajo (objetivo 2) la cual cosa hará que el número de alumnos matriculados aumente hasta la mitad de la población.

Lortzen ez badute – Helburu hori lortu gabe geratuko da, eta aurrera jarraituko dute.

Helburu hau lortu badute, baina aurreko helburua lortu ez badute – Aurreko helburua lortuko dute (beraz, emaitza berriro formulatu beharko da, eta irabazi duen taldea hasiko da esaldia ordenatzen)

NESKAK: begiak estalita eta ontzirik erabili gabe, litro erdi ur ontzi batetik bestera eraman behar dute, 5 metroko distantziara. Ez dago denbora-mugarik. Ez galtzeko, beste taldeetako kideek gidatuko dituzte.

Lortzen badute – Komunitateko nesken hiru laurden ikastetxeko eskoletara joatea lortuko dute, gurasoek jaso duten nekazaritza-prestakuntzari esker; izan ere, prestakuntza horri esker gurasoen erdiek lanpostu bat dute (3. helburua). Horri esker, ikastetxeko diru-sarrerak handitu egin dira, eta baratze bat egin ahal izan dute kantina hornitzeko (3. helburua). Baratzeko lanak hastearekin batera, GKEa putzua eraikitzen hasi da, eta jada lanaren erdia aurreratu dute (3. helburua).

Lortzen ez badute– Helburu hori lortu gabe geratuko da, eta aurrera jarraituko dute.

Helburu hau lortu badute, baina aurreko helburua lortu ez badute – Aurreko helburua lortuko dute (beraz, emaitza berriro formulatu beharko da, eta irabazi duen taldea hasiko da esaldia ordenatzen).

IKASTETXEA: ikastetxeari fitxa batzuk emango zaizkio (4. eranskina - fitxak), eta fitxa horietan munduko ur-kontsumoari buruzko datuak daude; bestalde, ehunekoak jasotzen dituzten fitxak ere emango zaizkio. Fitxa horiek zuzen parekatzen jakin behar dute. Behar izanez gero, beste taldeei laguntza eskatu ahal izango diete.

Lortzen badute – Bi lanpostu berri eskaini ahal izango dizkiete gurasoei (4. helburua) eta, horrela, komunitateko guraso guztiek lan bat izango dute (4. helburua). GKEak bukatua izango du putzua (4. helburua), eta baratzea ureztatu ahal izango dute eta neska guztiak eskolara joan ahal izango dira (4. helburua), jada ez dutelako 5 kilometro egin behar putzura iristeko.

Lortzen ez badute – Helburu hori lortu gabe geratuko da, eta aurrera jarraituko dute.

Helburu hau lortu badute, baina aurreko helburua lortu ez badute – sAurreko helburua lortuko dute (beraz, emaitza birformulatu beharko da, eta irabazi duen taldetik hasita ordenatu beharko da esaldia).

ONDORIOAK::

4 helburuak lortu badituzue, zorionak! Zorionak! Komunitate osoa erabat garatzea lortu duzue. GKEak bere lana amaitu du, eta orain, komunitate osoaren laguntzarekin, putzuaren mantentzea bermatu beharko du, Anjiamangiranako nesken hezkuntza zaintzeko. Orain denak eskolatuta daude, gurasoek lana dutelako eta eskola-matrikula ordaindu dezaketelako, eta neskek ez dute egunero 5 kilometro egin behar ur bila joateko, etxetik gertuago dutelako ura eta edozein unetan har dezaketelako. Eskolak kantina bat eta baratze bat ditu, eta komunitateko gurasoek bertan egiten dute lan; horri esker, eskolako ikasle guztiek egunean otordu bat bermatuta dute.

Hiru helburu lortu badituzue: oso emaitza ona lortu duzue.

Bi helburu lortu badituzue: bide erdia egin duzue.

Helburu bat lortu badituzue: lanean jarraitu behar duzue.

GOGOETARAKO GALDERAK

Ura beharrezko ondasuna da, baina ez edateko bakarrik. Gainera, egunean zehar ur asko gastatzen da. Badakizu zenbat ur kontsumitzen edo xahutzen duzun egunean zehar? Saiatu zaitezte guztien artean zerrenda bat egiten. Zer egin dezakezue uraren kontsumoa optimizatzeko?

- Egin hausnarketa eskolako probako galderen datuei buruz.

Hezkuntzarako eskubidea bermatzeko lan egiten dugun gobernuz kanpoko erakundeok faktore asko izan behar ditugu kontuan, kasu honetan ura; izan ere, haurren eta gazteen hezkuntza bermatzeko, beharrezkoa da haien ingurunea ona izatea. Beraz, mundu osoko haur eta gazteen inguruneek haiek ikasten jarraitzeko lagun dezaten ere lan egiten dugu.

ANTZEKO PROIEKTUAK EZAGUTZEKO ESTEKAK:

- https://www.fundacioproide.org/projectes/madagascar/

2. JARDUERA: URA ONDASUN UNIBERTSALA AL DA?

SARRERA

Gure eguneroko bizimoduan, ura eskueran dugu ia beti; baina ez da hala gertatzen munduko bazter guztietan. Gaur egun, oraindik milioika umek ez dute ura eskueran, nahiz eta eskubide unibertsala den. Gainera, pertsona askok eta askok, oraindik, ura baliabide infinitua dela uste dute, ez dela inoiz agortuko. Herrialde aberastuek pobretuek baino 12 aldiz ur gehiago kontsumitzen dute. Jarduera honek uraren kontsumoari buruz hausnartzeko aukera eman nahi du, aldatzeko eta aurrezteko irtenbideak proposatuz.

MATERIALA

- Paketatzeko paper-bilkaria edo kartoi meheak.
- Errotuladoreak
- Kanpainaren bideoa: Ura ondasun unibertsala da?

GARAPENA

Bideoa ikusi aurretik:

Biribilean eseriko gara, eta zerrenda bat egingo dugu paper handi batean: ura kontsumitzen dugun eguneko une guztiak jasoko ditugu, eta kontsumo hori nolakoa den ere idatziko dugu (adibidez: hortzak garbitu, ura edan, dutxatu...). Amaitzen dugunean, gure egunerokoa urik gabe nolakoa izango litzatekeen pentsatuko dugu, eta urik gabe geratuko bagina zer egingo genukeen. Zerrenda bat egingo dugu.

ikusiko ondoren:

Lehenengo zerrenda berrikusiko dugu, behar izanez gero.

- Jabetzen al gara munduan milioika pertsonak ez duela iturriko ura eskueran etxean edo etxetik gertu?

- Urik gabe imajinatu duzuen bizitzak ba al du bideoan ikusi dugunaren antzik?
- Gure kontsumoak besteengan eragina duela uste duzue?
- Gure ur-kontsumoak planetaren iraunkortasunari eragiten diola uste duzue?
- Bideoko zer datuk harritu zaituzte gehien?

Galderekin amaitutakoan, ura erabiltzen dugun uneen lehenengo zerrenda hartuko dugu berriro, eta une horietan guztietan ura aurrezteko moduak bilatzen saiatuko gara. Irtenbide horiek guztiak aintzat hartuta, erronkak osatuko ditugu.

Taldeko kide bakoitzak erronka bat aukeratuko du (adibidez, dutxatik ura biltzea kubo batean, sukaldearen erabilitako urarekin landareak ureztatzea, etab.), eta bideo bat grabatuko du, erakundearen edo taldearen sare sozialetan eskegitzeko eta, hala, sentsibilizazio kanpaina bat egiteko; hashtag edo traol-hitz bat ere asmatu beharko dute horretarako.

3. JARDUERA: ZER DAKIZU URAZ?

SARRERA

Guztiok jabetzen gara, gehiago edo gutxiago, daramagun bizimoduaz; gure kontsumoak eta gure erosotasunak ondorio batzuk dituzte, maila globalean, ondorio horiek klimari eragiten diote, eta ziklo naturala aldarazten dute. Dena den, gure egunerokoak ez digu aukerari uzten gelditu eta beste aukera batzuez pentsatzeko, ez eta oro har Iparraldeko herrialdeen bizimodu horrek izan dezakeen inpaktua ikusteko ere. Batzuetan, ideia horiek zifratan jartzen ditugunean, argiago ikusten dira gauzak, eta gaitasun handiagoa dugu ulertzeko noraino gauden sartuta klima-aldaketaren kontu horretan.

Zifra horiek bistaratzeko, memory jokoa proposatzen dizuegu. Bikote berdinak aurkitu beharrean, galderak eta erantzunak topatuko dituzue.

MATERIALA

Memory eranskina.

DENBORA:

45 minutu.

GARAPENA:

Prestatu jokorako fitxak. Galderek urdin argia dute atzealdea, eta erantzunek, berriz, urdin iluna; horrela bereiziko dituzue. Erantzuna asmatu duzuen jakiteko, biratzerakoan markoak zer kolore duen hartu behar duzue kontuan.

Jokoa ohi bezala garatuko da: txandan-txandan bikoteak aurkitu behar dituzue; baina zuen taldearen errealitatera egokitu dezakezue; taldetan nahiz banaka jokatu daiteke, eta, pixkana, bikoteak aurkitzen joango zarete.


AZKEN GOGOETA

Bikote guztiak topatu dituzuenean, egindakoa bateratuko dugu.

- Zein datuk harritu zaituzte gehien?
- Kolorerik gabe gai izango zineten erantzunak asmatzeko?
- Bazenekiten datu horietakoren bat?
- Zein datuk du zuzeneko eragina zuengan?
- Egin dezakegu ezer horietako egoeraren bat lehengoratzeko?

1. ERANSKINA

HASIERAKO EGOERA



HASIERAKO EGOERA

Anjiamangiranan gaude, Madagaskar uhartearen iparraldean; landa-eremuko herri honetan, nekazaritza eta abeltzaintza dira jarduera nagusiak. 1.000 biztanle baino gutxiago ditu herri honek, eta gehienak eskola-adineko haurrak dira, baina guztiak ez dira eskolara joaten, batez ere neskak, etxean beren zeregin nagusia ur bila joatea baita, eta putzurik hurbilena herritik 5 kilometrora dago (bi orduko joan-etorria egiten dute oinez). Gutxienez bi aldiz egiten dute bidea, familia osoak behar duen ur guztia eramateko. Lan hori ez dute bakarrik egiten, amek lagunduta baizik.

Haur eta gazte guztiak eskolara joan daitezen lan egiten duen tokiko GKE batek pentsatu du neskato horiek hezkuntza jasotzeko modu bakarra ura herrira hurbiltzea dela, eta horrela, komunitatearekin batera, putzu bat eraikitzea erabaki du.

Herriko ikastetxeak, elizbarrutiaren esku dagoenak, ikastetxearen beraren lursail bat laga du putzua egiteko; izan ere, ikastetxeak ura badu, neskek eskurago izango dute eta aldi berean ikasi ahal izango dute. Horrez gain, haurren eta instalazioen higienea hobetzea ahalbidetuko du, eta luzera begira ere eskolako kantina barazkiz eta laborez hornituko duen baratze bat sortu ahal izango dute. Modu horretan, ikastetxeko haur guztiek otordu osasungarri bat egin ahal izango dute eskolan.

Baina hori guztia lortzeko lan egin behar da; prest al zaudete helburu hori lortzeko?



2. ERANSKINA

HELBURUEN FITXAK

NESKAK

1.helburua: Matrikula berri bat lortu duzue eskolan.

2.helburua: Nesken erdiak eskolatuta egotea lortu duzue.

3.helburua: Nesken 3/4 eskolatuta egotea lortu duzue.

4.helburua: Neska guztiak eskolatuta egotea lortu duzue.

GURASOAK

1.helburua: Nekazaritzaren arloko prestakuntza lortu duzue.

2.helburua: Eskolako kantinan lan egiteko elkarrizketa bat lortu duzue.

3.helburua: Gurasoen erdiek lana lortu duzue

4.helburua: Guraso guztiek lortu duzue lana.

IKASTETXEA

1.helburua: Eskolan kantina bat izatea lortu duzue.

2.helburua: 2 langile lortu dituzue kantinarako.

3.helburua: Eskolako baratze bat egitea lortu duzue.

4.helburua: Eskola-baratzerako 2 langile lortu dituzue.

GGKEa

1.helburua: Putzu bati eraikitzeko dirulaguntza-eskaera aurkeztu duzue.

2.helburua: 6000 € lortu dituzue putzua eraikitzeko.

3.helburua: Putzuaren erdia eraiki duzue.

4.helburua: Putzua eraikitzen amaitu duzue.

NESKAK

Herriko neska talde bat zarete, eta 8 urte zeneuzkatenean eskolara joateari utzi behar izan zenioten, ur bila joateko nahikoa indar zenutelako. Egunero 2 ordu egiten dituzue oinez ur bila joateko eta urarekin etxera itzultzeko, eta gero etxekoentzako janaria prestatzen duzue.

Zuen helburua eskolara itzuli ahal izatea da.

GURASOAK

Guraso talde bat zarete. Aitek ez duzue lanik; amek 2 orduko ibilbidea egin behar duzue ur bila joateko eta ura etxera ekartzeko, eta, ura ekarri ondoren, azokara joaten zarete saltzera. Zuen ekonomia ez da egonkorra, eta ezin dituzue zuen alabak eskolatu.

Zuen helburua lan egonkorra lortzea da.

IKASTETXEA

Parrokiako ikastetxearen zuzendaritza zarete, eta konturatu zarete nesken eskolatzea txikiegia dela, etxeko lanez arduratzen direlako. Instalazioak hobetzeko, ur-putzu bat egin nahi duzue eskolan, higienea hobetzeko, baina baita baratze bat izateko ere, eskolako haurrek egunean otordu bat egin dezaten.

Zuen helburua baratze bat eta kantina bat eraikitzea da.

GGKEa

Herrien garapenerako eta haurren hezkuntza bermatzeko lan egiten duen tokiko GKE bat zarete. Anjiamangirana herriak duen arazoa ikusita, zuen ustez, neskek eskolara joateko irtenbiderik onena ur-putzu bat izatea da, hala, oinez urrutira joan beharrik izan ez dezaten.


Zuen helburua eskolan putzu bat eraikitzea da.

3. ERANSKINA





4. ERANSKINA


1
2
3
4
5
6
7
8
9
10
11
12
13
14
15


5. ERANSKINA


FITXAK


Zenbat ur du Lur planetak, ehunekotan?

Planetako ur guztiaren zer ehuneko da ur geza?

Planetako ur guztiaren zer ehuneko da ur gazia?










Biztanleriaren % 12k ur guztiaren zer ehuneko kontsumitzen du?




Ur gezaren zer ehuneko dago izoztuta poloetan?

Zein da planeta osoan eskuragarri dagoen ur geza likidoaren (izoztu gabea) ehunekoa?








Biztanleriaren zer ehuneko bizi da nazioarteko ibaien ertzetan?	**Biztanleriaren zer ehuneko bizi da ibaietatik urrun eta, beraz, herrialdeen lankidetzaren beharra du edateko ura lortzeko?**	**Hondakin-uren zer ehuneko iristen da tratamendurik gabe ibai eta itsasoetara (hau da, kutsatzaileekin)?**
		


6. ERANSKINA

MEMORY


Zenbat ur du Lur planetak, ehunekotan?




Planetako ur guztiaren zer ehuneko da ur geza?




Planetako ur guztiaren zer ehuneko da ur gazia?




Biztanleriaren % 12k ur guztiaren zer ehuneko kontsumitzen du?



Ur gezaren zer ehuneko dago izoztuta poloetan?




Zein da planeta osoan eskuragarri dagoen ur geza likidoaren (izoztu gabea) ehunekoa?





Biztanleriaren zer ehuneko bizi da nazioarteko ibaien ertzetan?

Biztanleriaren zer ehuneko bizi da ibaietatik urrun eta, beraz, herrialdeen lankidetzaren beharra du edateko ura lortzeko?

Hondakin-uren zer ehuneko iristen da tratamendurik gabe ibai eta itsasoetara (hau da, kutsatzaileekin)?







Zenbat pertsonak ez dute edateko ura eskuratzeko aukerarik munduan?

Zenbat pertsona gaixotzen dira urtean edateko urik ez edukitzeagatik?

Pertsona bakoitzeko zenbat litro ur gomendatzen ditu OMEk bizi-maila egokia izateko?







Zenbat pertsonak ez dute komuna erabiltzeko aukerarik?

Zenbat pertsonak edaten dute ura kutsatutako iturrietatik?

Zenbat haur hiltzen dira urtero ur garbirik ez izatearekin lotutako beherakoaren ondorioz?

673 milioi pertsonak

1.800 milioi pertsonak

800 haur

Zenbat pertsona hiltzen dira urtero ur garbirik ez izatearekin lotutako beherakoaren ondorioz?

2 milioi pertsona baino gehiago


ZER DAKIZU
URARI BURUZ?

ZER DAKIZU
URARI BURUZ?

ZER DAKIZU
URARI BURUZ?

ZER DAKIZU
URARI BURUZ?

ZER DAKIZU
URARI BURUZ?

ZER DAKIZU
URARI BURUZ?

ZER DAKIZU
URARI BURUZ?

ZER DAKIZU
URARI BURUZ?

ZER DAKIZU
URARI BURUZ?

ZER DAKIZU
URARI BURUZ?

ZER DAKIZU
URARI BURUZ?

ZER DAKIZU
URARI BURUZ?


ZER DAKIZU
URARI BURUZ?


ZER DAKIZU
URARI BURUZ?